

**Baketik-ek zinemari eta hezkuntzari  
buruzko ikastaro berria eskainiko du Arantzazun**

Baketik-ek filmen zerrenda luze batez osatutako zinema-zerbitzua abiarazi zuen gogoeta, elkarrizketa eta zentzu kritikoa bultzatzeko asmoz. Zerbitzuak eskaintza ezberdinak jasotzen ditu.

Zerbitzu honek urtero zinemak hezkuntzan izan ditzakeen erabilpenetan sakontzeko ikastaroa antolatzen du. Iazkoak izan zuen harrera ona dela-eta, aurtengo ikastaroa ere Iñigo Marzabalek, Euskal Herriko Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakasleak, emango du. Ikastaroa otsailaren 5ean eta 6an izango da, Arantzazuko Gandiaga Topagunean, eta honako ordutegia izango du: otsailaren 5ean 17.00etatik 20.30era eta otsailaren 6an 9.00etatik 14.00etara. Matrikula 40 eurokoa da.

Ikastaroan izena emateko nahikoa da Baketik-ekin harremanetan jartzea 943-251005 telefonora deituz, info@baketik.org helbide elektronikora idatziz edota www.baketik.org web gunean sartuz.

Ikastaroaren egitaraua ondorengo orrian daukazu

Adeitasunez,

Baketik

**Helburu nagusiak:**

- a) Arte hutsa delako ideia erromantikoa gaindituz, zinema gogoeta moralean erabil daitekeela erakutsi.
- b) Muinean gatazka etikoak dituzten zenbait pelikula garaikide aztertu.
- c) Landu beharreko gaiaren inguruko material didaktikoa egiteko oinarriak zehaztu.

**Programa****\* Zinema eta etika**

- Narrazioen erabilgarritasun etikoa (*El paciente inglés*, Anthony Minghella, 1997)
- Irudikapena edo deliberazioa (*Los puentes de Madison*, Clint Eastwood, 1995)

**\* Zergatik dut egiteko beharra?**

- Erantzukizuna (*Las normas de la casa de la sidra*, Lasse Hallström, 1999)
- Arduragabetasuna (*Hable con ella*, Pedro Almodóvar, 2002)

**\* Zoriontasuna eta Justizia**

- Justiziarik gabeko zoriontasuna? (*Delitos y faltas*, Woody Allen, 1989)
- Ez zoriontasunik, ezta justiziarik ere (*Barrio*, Fernando León de Aranoa, 1998)

**\* Bizitzeari utzi**

- "Autonomizatutako" heriotza (*El hombre elefante*, David Lynch, 1980)
- "Medikalizatutako" heriotza (*Amar la vida*, Mike Nichols, 2001)

**\* Proposamen didaktikoa: 21 gramos, Alejandro González Iñárritu, 2003****Metodologia**

Programan jasotako bost gaiak lau ordu banako bi saiotan landuko dira. Gai bakoitzaren edukiei buruzko azalpena eta eztabaida aukeratutako zenbait pelikula-zatiren irudietan oinarriturik egingo dira. Ikastaroa egin nahi duten lagunei, aldez aurretik, Alejandro González Iñárrituren *21 gramos* (2003) filma ikustea gomendatzen zaie.